




MENDATA



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Urdinean, zilarrezko ezpata eta hemetik eskegita urrezko balantza platertxoakaz.

AITAMEN HISTORIKOA

Busturiko merindadeko eleizatea. Fidel bat eukan, eta Gernikako Batzar Nagusietan 9. eserlekua eta botua eukazan. Bere jurisdikzioan oinetxeak eta armaetxeak egozan: Mansa, Besantxe, Zugaza, Olabezirarruista, Lamikez, Arestieta eta Olaeta –938an Iñigo Ortiz de Antxoka Urartek egindakoa–. Biztanleak mendian eta lautadan zehar sakabanaturik bizi ziran, eta arto, gari, indaba eta barazki ugari batzen zituen; basoak larrretarako ezeze, burdin-oletarako eta eraikuntzarako materialak lortzeko be erabilten zituen.

XVII. mendearen hasieran hauteskunde orokorrak egin ziran Bizkaiko Jaurerriko erregimentu nagusiko kideak aukeratzeko, eta Mendata batzutan oinaztarren alde, eta beste batzutan, ostera, ganboatarren alde azaldu zan.

1641ean Mendatako eleizatea zuzentzeko estatutoak idatzi ziran, eta herritarrek onartu ostean, eleizaren baiezkoa 1642ko abuztuaren 9an hartu eben Kalagorriko gotzai-epailearen eskutik. Estatutoak 14 kapitulutan banatuta egozan, eta helburua eleiztarren izpiritu erligioso zaintzea zan.

1794ko abuztuaren 23an Mendatako soldaduak Ondarroara heldu ziran Ondarroa babesten laguntzeko.



DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de azur, una espada de plata, de la que cuelgan a ambos lados los platillos de una balanza, de oro.

RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia de la merindad de Busturia. Estaba regida por un fiel con el voto y asiento noveno en las Juntas Generales de Gernika. Varias casas solares y armeras fueron levantadas en su jurisdicción: Mansa, Besantxe, Zugaza, Olabezirarruista, Lamikez, Arestieta y Olaeta, construida ésta el año 938 por Iñigo Ortiz de Antxoka Urarte. Sus habitantes, dispersos entre montañas y llanuras, recogían aceptables cosechas de maíz, trigo, alubias y hortalizas y explotaban los montes para pastos que además ofrecían material para ferrierías y construcción.

A comienzos del s. XVII, en las elecciones generales del personal del regimiento general del Señorío de Bizkaia, Mendata votaba a veces por el bando oñacino y otras por el gamboíno.

En el año 1641 se redactaron y aprobaron por los vecinos los estatutos que habían de regir la anteiglesia de Mendata, recibiendo la confirmación eclesiástica del provisor de Calahorra el 9 de agosto de 1642. Estos estatutos constaban de 14 capítulos para conservar el espíritu religioso de los feligreses.

El 23 de agosto de 1794, los soldados de Mendata llegan a Ondarroa para ayudar en su defensa.